



Ugalderrota

etxebizitza

Aldacrak: Txakilloena
Ahozkoa: Txakillona

“... la casa molino titulada Ugaldea... en el barrio de San Lorenzo de la anteiglesia de Berriz... se compone de piso llano con cocina, un cuarto y cuadra, y las molindas con una piedra para maíz con sus correspondientes utiles, y en la parte superior camarote, y mide su planta una superficie de ciento nueve metros cuadrados...”
DJE, 6/111. or. (1892)



43° 11' 5"

2° 34' 17"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Berriztarren artean *Txakilloena* izenez ezagutzen da baserri-errota hau, ahozko forma *Txakillona* izanik. Arestian aipatu dugun *Ugaldea* (**Ikus Ugaldea**) baserriarekin estu lotuta agertzen da dokumentazioan. Berez, dokumentu guztietan forma berarekin aipatzen dira. Bizkaiko su-erroldean, esaterako, *Ugaldea* (1796) agertzen zaigu. 1825eko polizia-errolan, *Ugaldea mayor* (1825, PE/1825) jasotzen da lehenengoz. Hortik aurrera, forma bera mantentzen da, nahiz eta jabego-erregistroko deskribapenari so eginenez, ikusten dugu bertan “... la casa molino titulada Ugaldea...” jasotzen dela, izen bereko beste eraikinarekin bereizita.

Gauzak horrela, XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera ere, horrela identifikatzen da

baserri hau dokumentazioan: *Ugalderrota* (1967, BUA, CE). Ikerketa toponimikoaren harira, komenigarritzat hartu dugu izenaren bigarren osagai hori mantentzea, *Ugaldea* baserriük bereizi ahal izateko.

Izenak adierazi moduan, errota izandako erai-kina da. Horietan gertatzen den legez, funtzionaltasuna da nagusi, eta baoak modu irregular samarrean kokatuta ditu. Gainera, berriztatze-lanetan dihardute, eta itxura zeharo aldatuko da. Edozelan ere, solairu biko etxea da, eta neurri oneko leihoak dauzka, zahar ez direnaren seinale. Harritzkoak dira hormak, eta harlandua soilik etxearen kantaletan erabili zuten. Isurki biko teilatuaz estalita dago.

toponimia

Hitz arrunteko uhalde-ren mendealdeko aldaera dugu ugalde. Hitzaren osagaiak argiak dira, ur eta alde, eta hiru esangura desberdin ditu. Batetik “ibaiairen ertza” da “orilla” eta bestetik, gainezka egiten duen erreka, eta azkenik ibaia, besterik ez. Beraz, “errekako errota” edo “ibaiairen aldeko errota” da esanahia.